



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **DANTZA KIROLETAKO GENERO BEREIZKETA LANTZEKO**

## **PROPOSAMENA**

### **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Gómez Ziordia, Irati.

ZUZENDARIA: Urrutia Gutierrez, Saioa.

**2020**

## DANTZA KIROLETAKO GENERO BEREIZKETA LANTZEKO PROPOSAMENA

Irati Gomez Ziordia

UPV/EHU

Gizartean ematen diren genero bereizketa eta estereotipoak kirol munduan ere islatzen dira eta hauek eragin zuzena daukate ikasleek kirolarekiko dituzten jarrera zein iritzietan. Horregatik, gela barruan genero berdintasuna lortzeko lanketak egiten diren bezala, garrantzitsua da ikasleek kirolarekiko eta Gorputz Hezkuntzarekiko dituzten jarrerei arreta jartzea eta hauen lanketa egitea. Gradu Amaierako Lan honetan, Lehen Hezkuntzako ikasleekin kiroltan ematen diren genero bereizketa eta jarreraren lanketa egiteko, esku-hartze proposamen bat egiten da. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle batzuek jarrera sexisten inguruko galdetegi bat bete dute gai honen inguruko iritziak eta premiak zeintzuk diren identifikatzeko. Ostean, ikasleen erantzunetatik abiatuta esku-hartze proposamena diseinatu da eta honen egokitasuna zehazteko ebaluazioa egin da.

*Gorputz Hezkuntza, kirola, genero bereizketa, dantza*

La segregación de género y los estereotipos de la sociedad, los cuales también se ven reflejados en el mundo del deporte, tiene un impacto directo en las actitudes y opiniones de los alumnos/as hacia el deporte. Por lo tanto, a medida que se trabaja para lograr la igualdad de género en el aula, es importante prestar atención y trabajar las actitudes de los alumnos/as hacia el deporte y la Educación Física. En este Trabajo de Fin de Grado, se hace una propuesta de intervención para trabajar la distinción de género y las actitudes sexistas en el deporte con alumnos/as de primaria. Algunos alumnos/as de Educación Primaria han completado un cuestionario sobre actitudes sexistas para identificar sus puntos de vista y necesidades sobre el tema anteriormente mencionado. Posteriormente, se diseñó una propuesta de intervención basada en las respuestas de los estudiantes y se realizó una evaluación para determinar su idoneidad.

*Educación Física, deporte, segregación de género, baile*

Gender segregation and stereotypes in society are also reflected in sports, which has a direct impact on students' attitudes and opinions towards them. Therefore, as you work to achieve gender equality in the classroom, it is important to pay attention and work on students' attitudes towards sport and Physical Education too. In this project, an intervention proposal is made to work on gender distinction and attitudes in sport with Primary School students. Some elementary school students have completed a questionnaire on sexist attitudes to identify their views and needs on this topic. Subsequently, an intervention proposal was designed based on the students' responses and an evaluation was carried out to determine their suitability.

*Physical Education, sport, gender segregation, dance*

## **AURKIBIDEA**

1.Sarrera .....	1
2. Marko teorikoa.....	2
2.1. Genero bereizketa gizartean eta kiroletan.....	2
2.2. Genero bereizketa Lehen Hezkuntzan .....	3
2.2.1. Genero bereizketa Gorputz Hezkuntzan eta kiroletan.....	4
2.2.2. Gorputz Adierazpena Gorputz Hezkuntzan.....	6
2.2.3. Dantza Gorputz Adierazpenean .....	7
3.Helburua .....	8
4.Metodoa.....	8
4.1.Lagina .....	8
4.2.Tresna.....	8
4.3.Prozedura .....	9
5.Emitzak .....	9
6.Proposamenaren diseinua .....	11
6.1.Proposamenaren justifikazioa.....	11
6.2.Arazo-egoera.....	13
6.3.Lotura kurrikularra.....	13
6.4.Metodologia .....	15
6.5.Jardueren sekuentzia .....	17
6.6.Ebaluazioa.....	18
7.Proposamenaren ebaluazioa .....	20
8.Ondorioak .....	21
9.Mugak eta hobekuntza proposamenak.....	22
9.Erreferentzia bibliografikoak.....	24
10.Eranskinak.....	26
I.ERANSKINA: Ikasleek betetako inkesta .....	26
II.ERANSKINA: Esku-hartze proposamenaren saioak .....	28
III.ERANSKINA: Ebaluazio tresnak .....	40

## **1.SARRERA**

Eskolan gizartean ematen diren hainbat jarrera erreproduzitzen dira, horien artean genero bereizketa eta genero estereotipo ezberdinak. Ikasleek eskolatik kanpo ikusten edo ikasten dutena eskolan islatzen dute, batez ere generoaz ari garenean, adibidez; gainontzeko ikasleekin dituzten jarreretan, patioan jolasteko aukeratzen dituzten jardueretan edota harremantzeko taldeetan.

Gorputz Hezkuntzaren bidez ikasleen benetako izaera ikusteko aukera dago, mugimenduaren bidez ikasleek askatasunez jokatzeko dutelako. Hortaz, espezialistek jarrera horiek behatzeko aukera daukagun heinean, garrantzitsua da rol eta bereizketa horiek lantzea ikasleen arteko genero berdintasuna lortzeko.

Aipatutako lanketa hori egiteko hainbat bide daude, kasu honetan gorputz adierazpenak eskaintzen duen dantza hezitzaileaz baliatuko naiz ikasleek kirolarekiko eta jarduera fisikoarekiko dituzten genero bereizketen lanketa egiteko.

Horretarako proposamena Gasteizko Toki Eder eskola publikoko Crescendo musika elkartean abesten duten ikasleekin burutzea zen hasierako planteamendua. Covid-19ak sortutako egoera dela eta, lan honen prozedura aldatzea beharrezkoa izan da. Izan ere, ikasleen errealitatea eta ikuspuntua zeintzuk diren aztertze galdetegi bat egitea eskatzea zen ideia, galdetegi horren emaitzak aztertu ondoren esku-hartzearen proposamen bat diseinatu, ikasleekin aurrera eramane eta proposamenaren amaieran hasierako galdetegi berdina luzatu erantzunetan aldaketa bat eman den behatzeko.

Beraz, egoera berezi honen aurrean eta esku-hartzea aurrera eramatearen aukera baztertuta, ikasleek galdetegian emandako erantzunetatik abiatuta, esku-hartze proposamen hipotetiko diseinatzea erabaki dut prozesuaren amaierako fasea ezabatuz.

## **2. MARKO TEORIKOA**

### **2.1. Genero bereizketa gizartean eta kirolatan**

Urteak aurrera joan ahala, gizon eta emakumezkoen arteko berdintasuna lortzeko pausoak eman izan dira baina oraindik lan asko dago egiteke. Horrekin batera, azken urteotan jarduera fisikoa eta kirola egiteak gero eta garrantzi handiagoa hartu dute. Izan ere, bizi estilo aktiboek hainbat onura dakartzate hainbat arlotan, besteak beste: osasunean, ongizatean, harremanetan eta aisialdian. Hala ere, gizartean ematen diren genero bereizketak eta estereotipoak kirol munduan eta jarduera fisikoa egiteko ohituretan ere ematen dira eta nabariagoak izaten dira (Muñoz, Campos, Toro eta de Los Fayos, 2012).

Kirolari profesionalen kasuan, gizonezkoek emakumezkoek baino aitorten maila handiagoa daukate. Emakumezkoek, aitorten falta horrengatik, zailtasun gehiago izaten dituzte kirolari profesionalak izateko eta horren ondorioz, gizonezkoek duten aitorten maila berdinerara ailegatzeko ordu gehiago ematen dituzte entrenatzen (Martin Horcajo, 2006, Muñoz, Campos, Toro eta de Los Fayosek (2012) aipatuta).

Horrez gain, kirolari profesionalak albo batera utzita, gizonezkoek eta emakumezkoek helburu ezberdinak bilatzen dituzte kirola edo ariketa fisikoa egiten dutenean. Gizonezkoek askotan egoera fisikoa hobetzera eta haien trebetasun fisikoak garatzera zuzentzen dituzte haien jarduerak. Emakumezkoek berriz, estetikari zuzentzen dituzte haien praktikak, komunikabideetan eta gizartean ikusten dituzten emakume gorpuzkerak lortzeko helburuarekin. Helburu horiek eragin zuzena daukate hautatzen diren kirolekin, emakumezkoek igeriketa, boleibola edo gimnasia bezalako kirolak aukeratuz eta gizonezkoek berriz, futbola, karatea, errugbia eta saskibaloia bezalako kirolak aukeratuz (Blández, Fernández eta Sierra, 2007).

Crawford eta Ungerrek (2004) (Blández, Fernández eta Sierrak (2007) aipatuta), genero estereotipoei dagokienez, bi ezaugarri multzo bereizi zituzten; alde batetik ezaugarri instrumentalak edo maskulinitatearekin lotzen direnak eta bestalde, afektibo-espresiboak edo emetasunarekin lotzen direnak. Lehenengo ezaugarri multzoa jarrera eraginkorrekin lotzen da eta bigarren multzoa berriz, beste pertsona batzuetan zentratzen diren jarrerekin lotuta dago. Beraz, txikitatik jasotzen den hezkuntza genero ezaugarri horiek bereganatzera zuzentzen da askotan eta bizitzaren hainbat esparrutan islatuta ikus daiteke.

## 2.2. Genero bereizketa Lehen Hezkuntzan

Eskolaren papera ikasleen gizarteratze-prozesuan oso garrantzitsua da, ikasleek ordu asko ematen dituztelako eta beste ikasle askorekin harremanetan daudelako. Eskolak ikasleak hezitzeko hainbat aukera ematen dituen heinean, horietaz baliatu beharra dago, dauden gizarte arazoak identifikatuz eta ahal den heinean konponbide bat bilatuz (Piedrafita, 2014). Hortaz, adingabeek eskolan jasotzen dituzten genero-ereduek gizartean ematen diren genero rol tradizionalen erreprodukzioa sustatu dezakete edo horien eraldaketan eragina izan (Soler, 2006). Horregatik, ikasleen oinarri emozional eta sozialaren lanketa egiteak haien arteko berdintasuna eta elkarbizitza bermatzen lagunduko du (Muñoz, Campos, Toro eta de Los Fayos, 2012).

Aurrekoaren eredu argia eskolako jolastokia eta patio orduko jarduerak dira. Patioa genero bereizketa islatzen duen lekuetako bat da, tokiaren eta materialaren banaketa horren adierazle izanda. Izan ere, Solerrek (2006) aipatzen duen bezala, gizartean futboleak ibiltzeak soka saltoan ibiltzeak baino balore gehiago daukanez, jolastokietan bereizketa hori argi ikusten da. Futbol edo saskibaloiko zelaiek leku gehiago hartzen dute eta patioaren ardatz bihurtzen dira, gainontzeko jarduerak baztertuta geratuz.

Hortaz, eskolan ematen diren genero praktikak aztertu behar dira, hauek agerian jarri, aldatuz eta genero bereizketa saihestuz. Hezitzaileek behatzen dituzten bazterketa edo indarkerizko jarrera orori aurre egin behar diete eta hezkidetzaren planak abian jarri, ikasleen artean errespetuzko jarrerak bermatze aldera (Piedrafita, 2014). Hala ere, nahiz eta eskolak ikasleen gizarteratze-prozesuan paper garrantzitsua jokatu eta irakasleek jarrera kritikoa izan, irakasle lanaren eraginaren muga zein den ezagutu eta onartu beharra dago, izan ere, eskola ez da umeengan eragina daukan faktore bakarra.

Saucedok eta Álvarezek (2010) egindako ikerketan gela barruan ematen diren praktika sexistak aztertu zituzten. Nahiz eta klaseak mistoak izan, gela barruan taldekatzeak ez mistoak izaten dira gehienetan eta horrek genero rol estereotipatuak erreproduzitzea eragiten du. Neskek, eskola garaian, sexismoa dela eta, etorkizunerako jarrera egokiak zeintzuk diren ikasten dute, hau da, haien generoari egokitutako rolak ikasten dituzte: besteen zainketa, emozio-menpekotasuna, altruismoa... Mutilek berriz, haien genero maskulinoari esleitutako rolak eta baloreak ikasten dituzte, besteak beste: independentzia, sentimenduen kontrola, lan munduan arrakastatsu izateko tresnak...

### **2.2.1. Genero bereizketa Gorputz Hezkuntzan eta kiroletan**

Eskolan ematen diren genero harremanek eta kirol sisteman ematen direnak eragin zuzena daukate Gorputz Hezkuntzako saioetan, kiroletan ematen diren arau eta balore asko Gorputz Hezkuntzako saioetan ere ematen direlako. Solerren (2006) arabera, Gorputz Hezkuntzak genero ereduari dagokionez, bi perspektiba izan ditzake: eredu tradizionalak erreproduzitzen eta iraunarazten dituen edo genero eredu horiek eraldatzen dituen. Bi perspektiba horietan eragina duten faktoreak hainbat dira; saioen antolaketa, ikasleen artean ematen diren harremanak, irakasle eta ikasleen arteko elkarrekin eta ikasleak proposatutakoaren inguruan ematen duen erantzuna, besteak beste.

Saioen antolaketari dagokionez, Gorputz Hezkuntzako espezialistek genero eredu tradizionalak bermatzen dituzte askotan. Nahiz eta proposamenak anitzak eta berritzaileak izan, irakasleek kontrako mezuak bidaltzen dizkiete ikasleei. Mezu horiek curriculum ezkutuarekin lotura daukate, hau da, hezkuntza bizipenetan ematen diren planifikatu gabeko ikaskuntzak, etorkizuneko jarrera eta jokamoldeak taxutzen dituztenak (Tinning, 1992). Ikaskuntza hauek espazioaren banketan, materialaren erabilpenean, denboraren antolaketan eta irakasleak egiten dituen proposamenetan islatzen da. Irakaslearen diskurtsoa ikasleen generoa, itxura eta saioetan egiten duten esfortzuaren arabera baldintzatzen da (Bain (1985), Devís, Fuentes eta Sparkes (2005) aipatuta). Hau da, saioetan gogotsu parte hartzen duten ikasleek eta parte hartze murriztagoa duten ikasleek ez dituzte mezu berdinak jasoko espezialistarengandik. Irakasleak ikasle guztien parte hartzea lortzen saiatuz gero, ikasleek Gorputz Hezkuntzarekiko bizipen positiboak izango dituzte eta ondorioz, etorkizuneko bizi estiloetan eta erabakietan askatasunez jokatuko dute, genero estereotipoak alde batera utziz (Moreno eta Carvelló, 2004). Hortaz, irakaslearen diskurtso kritiko bat ikaslearen arteko berdintasunerako eta genero rola gainditzeko giltza izan daiteke.

Espezialistaren jarreraz gain, Gorputz Hezkuntzako saioetan ikaslearen jarrera eta irakaslearen sinesmenak oraindik oso estereotipatuak dira eta gizartean ematen den patriarkatuaren dualismoa (irabazi/galdu, lana/jolasa, publikoa eta pribatua) iraunarazten da (Tinning, 1992). Heziketa Fisikoko saioetan nahiz eta irakasleak ikasle guztien parte hartzea lortzeko jolasak proposatu, mutil trebeek neskek baino gehiago parte hartzen dute eta hori gutxi balitz, mutil batzuek neskak baztertzen dituzte haien trebetasun faltagatik. Beraz, neskek proposatzen diren jolasetan parte hartzea irabazi nahi badute, mutilek baino esfortzu gehiago egin behar dute eta haiek bezain trebeak direla erakutsi behar dute (Soler, 2006). Nahiz eta neskek parte hartze hori irabazi,



mutilen parte hartzea askotan bortitza izaten da eta neskek mina ez hartzekotan nahiago dute mutilekin ez jolastea edo jolasten duten bitartean bazter batean geratzea.

Horren ondorioz, neskek presio eta exigentzia maila handia bizitzen dute mutilek egiten dituzten jarduerak egiteko prest daudela erakutsi behar dutelako. Hala ez bada, neska batzuek jarrera pasibo batekin adierazten dute saioarekiko daukaten desadostasuna eta Gorputz Hezkuntzan egiteko alternatibak bilatzen, dituzte egoera motorretan edo jardueretan aldaerak sortuz haien interesa piz dezaten. Aldaera horien bitartez kirolaren eta jarduera fisikoaren emakumezko perspektiba berriak sortzen dira, kirolaren berezko maskulinitatea alde batera utziz (Soler, 2006).

Egun ohikoagoa da neskek mutilekin lotuta egon diren kirolak egitea, izan ere, neskek aukera anitzagoak eta askatasun gehiago daukate haien kirola aukeratzeko orduan. Mutilek ordea ez dituzte feminitatearekin lotuta dauden kirolak edo ekintzak hainbeste aukeratzeko, adibidez: dantza edo erritmoarekin lotutako jarduerak (Lahoz, 2019). Nahiz eta neskek kirolarekiko genero estereotipoak gainditzen joan, mutilek oraindik zailtasun eta presio gehiago daukate feminitatearekin lotutako jarduerak praktikatzeko, gizartetik irainak edo komentario mingarriak jaso ditzaketelako.

Orokorrean, lehen aipatu bezala, ikasleek haien generoari ez dagozkien jarduerak egiteari errefus egiten diete, beraz espezialista bere saioetan ematen diren bazterketa jarreraren kontziente izan behar da eta horien arrazoia zein den ezagutu (Nateras eta Mendo, 2014). Alvariñasek, Fernandezek eta Lopezek (2009) egindako ikerketan ikusi zen, ikasleen ustetan, neskek mutilek egin dezaketen kirol berdinak egiteko gai direla, baina aldi berean, hainbat mutilek aipatu zuten kirol asko egiten duten neskak ez direla hain femeninoak eta bereizgarri maskulinoekin lotzen dituztela.

Generoa Heziketa Fisikoko gizarteratze-faktorarik garrantzitsuenetariko da, hortaz, irakasgai honetako saioetan ikasleek haien iritzia emateko hausnarketarako tarteak ustea baliagarria da. Ikasleek saioetan dituzten bizipenak eta sentimenduak partekatzearen bidez irakasleak bere saioen *feedbacka* jasoko du. Modu honetan, egoera motorren egokitasuna eta zuzentasuna ezagutuko da eta hobekuntzarako proposamenak diseinatzeko baliagarria izango da (Devís, Fuentes eta Sparkes, 2005).

Hezkuntzan berdintasuna eta errespetua sustatuz gero, ikasleek nahi duten kirola askatasunez aukeratzeko aukera izango dute, inolako genero estereotiporik gabe (Muñoz, Campos, Toro eta de Los Fayos, 2012). Aipatutako askatasun hori eskaintzeko hainbat baliabide daude; jarduera alternatiboak proposatzea, gizarteko eta eskolako jarrera anitzak agerian jartzea eta horien lanketa egitea, hauen onarpenena lortzeko helburuarekin (Devís, Fuentes eta Sparkes, 2005). Hortaz, ikasleen interes

anitzetara egokitzen diren saioak proposatzea komeni da, hau da, bai maskulinitatearekin lotzen diren jarduerak zein feminitatearekin lotzen direnak. Modu honetan, Gorputz Hezkuntzan eman daitekeen maskulinitate toxikoa saihestu daiteke eta ikasleei genero bereizgarri edo izaera guztiak onartzeko aukera emango zaie.

### **2.2.2. Gorputz Adierazpena Gorputz Hezkuntzan**

Gorputz Adierazpena Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Heziberri 2020 Curriculumeko eduki multzoetako bat izateaz gain, ikasleen garapen integralean hainbat onura dakartza, izan ere, alderdi sozial eta emozionalean lanketa handia egiteko aukera eskaintzen du. Hortaz, Gorputz Adierazpena ezin da Gorputz Hezkuntzako beste trebetasunetatik isolatu, baizik eta horiekin batera landu. Izan ere, harremanen, komunikazioaren eta trebetasun motorren inplikazioa behar duen baliabidea da (Castillo eta Rebollo, 2009).

Baliabide honen bitartez ikasleen sormena eta irudimena lantzeko aukera eskaintzen zaie ikasleei. Horretarako oso garrantzitsua da Gorputz Adierazpenean erabiltzen diren ereduak irekiak izatea eta bizipenetan oinarritutako ikaskuntza erabiltzea, hau da, ikasleek egiten ikastea (Sánchez, Ordás eta Lluch, 2013). Modu honetan ikasleek haien identitate pertsonala eta autonomia garatzeko aukera izango dute.

Aipatu bezala ikasleen bizipenetan oinarritutako ikaskuntza bultzatzen denez, haiek burututako prozesura bideratuko da Gorputz adierazpena, eta ez amaierako produktu edo emaitzara. Izan ere, tresna honen helburuetako batzuk honako hauek dira: norbere gorputza onartzea, plazerrezko sentsazio korporalak sentitzea, gorputzaren bidez adierazten ikastea, arnasketaren garrantziaz jabetzea, tentsioak askatzea, gorputzarekin sortzea, besteen gorputzak onartzea, gorputz dinamikez gozatzea, etab. (Cáceres, 2010).

Beraz, espezialistek Gorputz Adierazpena tresna bezala erabiliz gero ikasleei hainbat konpetentzia bereganatzeko aukera eskainiko zaie, besteak beste: ez-hitzezko komunikazioa erabiltzea ideiak azaltzeko, taldeko kideekin harreman positiboak sortzea, taldean lan egitea, sormenezko gaitasuna garatzea, elementu historiko, sozial, kultural eta artistikoak antzematea eta mugimenduaz disfrutatzea tentsioak askatzeko (Sánchez, Ordás eta Lluch, 2013). Hortaz, Gorputz Adierazpenak ikaslearen garapen integralean laguntzen duen heinean, estereotipoak eta arauak alde batera utzi behar dira, ikaslearen sormena landuz eta haren izaera bere osotasunean garatuz (Castillo eta Rebollo, 2009).

### **2.2.3. Dantza Gorputz Adierazpenean**

Gorputz Adierazpenak eskaintzen dituen baliabide anitzen artean, dantza gorputzarekin adierazteko moduetako bat da. Hau da, dantza mugimendua eta musika bateratzen dituen gorputz hizkuntza bat da. Honen bidez trebetasun motorrak eta gaitasun kognitiboa garatzeaz gain, emozio eta sentimenduen adierazpena lantzeko aukera eskaintzen da. Horretarako beharrezkoa da norbere gorputza onartzen eta munduari irekitzen ikastea (Cuellar, 2017).

Dantzaren ikaskuntza hainbat motatakoa izan daiteke baina lan hau hezkuntza arloaren barruan kokatzen denez, ardatza dantza hezitzailea izango da. Dantza hezitzailearen bidez, ingurunearekiko, beste pertsonetikiko eta norbere gorputzarekiko harremanak garatzen dira (Cuellar, 2017). Dantzaren ikaskuntza esanguratsu bat izateko Garciak, Pérezek eta Calvok (2011) kontuan hartu beharreko 3 aspektu aipatzen dituzte:

- Erraztasuna, bai mugimenduan zein taldearen antolakuntzan.
- Ikaskuntza ikaslearen esperientzietan eta adierazpenean oinarritutako metodologiaren bidez ematea. Hau da, ikasleek haien baliabide sortzaileak erabiltzea eta haien ikaskuntza prozesuan inplikatzeko.
- Ikaskuntza modu ludiko batean ematea, izan ere, jolasek ikaskuntza errazten dute eta motibatzaileak dira. Beraz, ikasleek gorputzarekin, musikarekin, espazioarekin eta kideekin jolastuko dute.

Aipatutako ikaskuntza egokia emateko irakasle edo hezitzailearen papera ikasleak animatzean oinarrituko da. Askatasuneko klima bat sortzearen arduraduna izango da, non ikasleak askatasunez harremantzen, adierazten eta sortzen duten. Klima horren sorkuntzan laguntzeko Cuellarrek (2017) kontuan hartu beharreko ondorengo ezaugarriak aipatzen ditu: musika egokia aukeratzea, erritmoa mugimenduari egokitzea, desinhibitze gaitasuna izatea; gorputz mugimenduetaz disfrutatzearen eta aprobetxatzearen plazerra transmititzeko, eta mugimendu estetikoarekiko gustua erakustea.

Hortaz, dantzaren ikaskuntza egoki baten bidez ikasleen sormena garatuko da, kideen arteko harremanen hobekuntza emango da, norbere buruaren ezagutzan lagunduko du, ikasleen adierazpen gaitasuna hobetuko du eta beraz, dantzak sortzen duen jakin-minaren bidez genero estereotipoak gainditzea lortu daiteke (García, Pérez, eta Calvo, 2011).

### **3.HELBURUA**

Kiroletan eta Gorputz Hezkuntzan ematen den genero bereizketa eta sexismoa dantzaren bidez lantzen duen esku-hartzearen diseinua.

### **4.METODOA**

#### **4.1.Lagina**

Esku-hartzearen proposamena diseinatzeko Gasteizko Toki Eder eskolako ikasleen laguntzaz eta parte hartzeaz baliatu naiz. Ikasle hauek Crescendo Musika Elkarteko 3 ahotsetako abesbatzan abesten dute. Partaideak 12 izan dira, 9 neska eta 3 mutil, Lehen Hezkuntzako 2.zikloan daudenak. Beraz, ikasle guztiek 9, 10 edo 11 urte dituzte. Horrez gain, neskak gehiengoa izanda interesgarria da haien ikuspuntuetatik abiatzea esku-hartze proposamenaren diseinua egiteko.

#### **4.2.Tresna**

Lan honen abiapuntua abesbatzako umeei egindako galdetegi bat izan da (ikus I.eranskina), izan ere, emaitza horietatik abiatuta esku-hartze proposamenaren diseinua egin da. Behin emaitzak jasota eta interpretatuta, 5 saioko esku-hartzea proposatu da ikasleen genero rolen lanketa egiteko.

Galdetegiaren izenburua honako hau da: *Cuestionario de Actitudes Sexistas en Educación Primaria elaborado a partir de la Escala de Detección de Sexismo en Adolescentes* (Recio, Cuadrado y Ramos, 2007). Honen helburua Lehen Hezkuntzan ematen diren jarrera sexisten azterketa egitea da eta galdetegiaren barruan hiru motatako galdera edo baieztapen azaltzen dira; kirolarekin erlazionatuta daudenak (6 galdera), genero rolen ingurukoak (16 galdera) eta generoari dagokionez bereizgarri direnak (4 galdera).

Ikasleei zuzendutako galdetegia 26 galderaz edo baieztapenez osatuta dago, *bai/ez* erantzutekoak. Behin ikasleek galdetegia erantzunda 1 edo 2 zenbakia esleitu zaio ikasleek erantzundako galdera bakoitzari. 2 zenbakia berdintasuna ulertzen duten ikasleen erantzunei esleitu zaio eta 1 zenbakia berriz, jarrera sexistak islatzen dituzten erantzunei. Beraz, *bai* erantzuna duten galderei 1 zenbakia esleitu zaie eta jarrera sexistekin lotu dira. *Ez* erantzuna duten galderei berriz, 2 zenbakia esleitu zaie eta berdintasuna ulertzen duten jarrerekin lotu dira. Hala ere, galdetegian alderantzizko baieztapenak daude eta beraz erantzunei kontrako zenbakia (*ez*, berdintasuna (2) / *bai*, sexismoa (1) ) jarri zaie. Honen adibide dira 4, 9, 16, 17, 18, 19, 21, 23 eta 24 galderak. Beraz, geroz eta puntuazio altuagoa lortu, orduan eta genero berdintasunerako jarrera handiagoa dagoela ulertzen da.

### 4.3.Prozedura

Lan hau aurrera eramateko dantza baliabide bezala erabiliko da ikasleek barneratuta dituzten genero bereizketa eta kirolarekiko genero ikuspuntuak lantzeko. Horretarako, lehen esan bezala, esku-hartze proposamen bat planteatu da Gasteizko Crescendo abesbatzan abesten duten Toki Eder eskolako ikasleen parte hartzeaz baliatuz. Ikasleen iritziak eta ikuspuntuak aztertu eta gero, ikusitako premiei erantzun bat emateko abesbatzako hainbat entseguetan aurrera eramateko proposamen bat diseinatu da.

Hasierako planteamendua ikasleei galdetegia pasatzea, erantzunak aztertu ondoren esku-hartzea diseinatzea, ikasleekin proposamena aurrera eramatea eta amaieran hasierako galdetegi berdina pasatzea zen (ikus I.eranskina); esku-hartzeak ikasleengan izandako eragina ikusteko eta haien erantzunetan aldaketaren bat ematen zen ikusteko. Covid-19ak sortutako ez-ohiko egoera dela eta hasierako planteamendu hori moldatu behar izan da. Beraz, galdetegia euskaratu eta gero, abesbatzako 16 ikasleei galdetegia emailez bidali zitzairen. 16 ikasle horietatik 12 ikasleen erantzuna jaso zen bakarrik, esku hartzearen proposamena haien erantzunetara egokituz.

Behin ikasleen erantzunak jasota, SPSS programaren bitartez emaitzen analisiak egin ziren eta galdetegiaren batz besteko orokorra zein alderdi bakoitzaren batz bestekoak atera dira. Emaitza eta batz besteko horietan oinarrituta ikasleek dituzten gabeziak aztertu dira eta horietatik abiatuta esku hartzea diseinatu da.

### 5.EMAITZAK

Jarraian ikasleei galdetegia pasatu ostean lortutako emaitzen bilketa aurkitu daiteke (1.taula). Lehen esan bezala, galdetegia 26 galderaz osatuta dago eta ikasleen erantzunei 1 (sexismoa) edo 2 (berdintasuna) esleitu zaie. Beraz, galdetegian lortu daitekeen puntuazio maximoa 52 da, gutxiengoa 26 puntukoa eta 38 puntuazioaren erdia da.

	N	M	DT	Min	Max
Sexismoa	12	47,17		26	52
Rola	12	29	2,17	25	32
Kirola	12	10,75	1,06	9	12
Bereizgarria	12	7,42	0,79	6	8

1.taula: Galdetegian lortutako emaitzak.

Galdetegiaren emaitzak modu orokorrean aztertuz gero, eta hauen batz bestekoa (47,17) aterata ikusi daiteke orokorrean ez dagoela jarrera sexista edo genero

bereizketa nabaririk. Hala ere, hainbat alderdi aldatu daitezke berdintasun maila batera (52 puntu maximoetara) ailegatzeko.

Emaitzen hiru multzoak aztertuta berriz, **genero rolen** inguruko galderak izan dira berdintasun gehiago lortu dutenak, 29 puntuko bataz besteko batekin. Alderdi honetako puntuazio maximoa 32 izanda, puntuazio minimoa 16 izanda eta erdiko puntuazioa 24 izanda. Izan ere, azken urteotan gizartean eta eskolan lanketa handia egin dela nabaritzen da.

**Kirolari** dagokionez; 12 puntuazio maximoa da, 6 puntuazio minimoa eta 9 erdiko puntuazioa. Ikasleen erantzunei erreparatuz gero, 10,75 puntuko bataz besteko balioa atera da. **Genero bereizgarrien** galderei erreparatuz gero; 8 puntuazio maximoa da, 4 puntuazio minimoa eta 6 erdiko puntuazioa. Ikasleen erantzunei erreparatuta, 7,42 puntuko bataz besteko balioa atera da. Beraz, nahiz eta bi alderdi hauetan lortutako bataz bestekoak erditik gorakoak izan ezberdintasun gehiago ikusten da.

Hortaz, esku-hartzearen proposamen hau aipatutako azken bi alderdi horietara bideratuko da. Nahiz eta genero roletan lanketa egin, kirolaren eta jarduera fisikoaren inguruan oraindik bereizketa ematen da. Horren lanketa egitea garrantzi handikoa da ikasle guztiek kirola eta jarduera fisikoa egiteko aukera berdinak izan ditzaten eta horren inguruko erabakiak askatasunez har ditzaten.

## 6.PROPOSAMENAREN DISEINUA

**Irakasgaia:** Gorputz Hezkuntza

**Gaia:** Gorputz Adierazpena, dantza eta kirola batzen.

**Maila:** Lehen Hezkuntzako 2.zikloa (4., 5. eta 6.maila)

**Saioak:** 6

### **6.1.Proposamenaren justifikazioa:**

Hautatutako gaia eta adinaren arrazoiak:

Lehen Hezkuntzan genero rolen eta bereizketaren inguruan lanketa handia egin da azken urteotan. Hortaz, ikasleen jarrera sexistak, genero rolen inguruan, nabarmen aldatu dira. Hala ere, kirol munduan eta Gorputz Hezkuntzan ikasleen artean ematen den bereizketa nabaria izaten jarraitzen du, izan ere, mutilentzako diren jarduerak eta neskentzako direnak bereizten jarraitzen dira.

Horregatik, berez nesken jarduera den dantza eta mutilekin lotzen den kirola batzea lortu nahi da proposamen honen bidez. Modu honetan kirolarekiko dauden estereotipoak gainditu nahi dira eta ikasleek dituzten jarrera sexisten lanketa egin nahi da.

Proposamen honen diseinua egiteko egun Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Hezkuntza Dekretua oinarritzat erabili da, Heziberri 2020 Oinarrizko Hezkuntza Curriculum Dekretua hain zuzen ere. Beraz, proposamenaren diseinuan zehar dekretua edo curriculum aipatzerakoan, lehenago izendatutako dokumentuari egiten zaio erreferentzia.

Etaparen ezaugarriak:

Lehenago aipatu bezala, esku-hartze proposamena Lehen Hezkuntzako 2.zikloko ikasleei bideratuta dago, hau da, 9-11 urte bitarteko ikasleei bideratutako proposamena da. Etapa honetako ezaugarri **kognitiboei** erreparatuz, adin hauetako ikasleak objektuen arteko erlazioak sortzeko, modu logiko batean hausnarketak egiteko eta haienak ez diren beste ikuspuntu batzuk bereganatzeko gai dira.

Garapen **psikomotorrari** dagokionez, ikasleek egiten dituzten mugimenduek zehaztasuna, zuzentasuna eta abiadura irabazten dute. Horrez gain, haien buruaren

gorputz eskema hobetzen dute eta haien gorputzaren irudikapen mentala garatzen dute (Maganto eta Cruz, 2010).

Etapa honetako ikasleen garapen **sozio-afektiboan** zentratuz gero, esan beharra dago, ez dituztela emozioak eta keinu afektiboak hainbeste azaleratzen. Hala ere, besteen emozioak eta sentimenduak ulertzeko gai izateaz gain, adiskidetasuna, elkarrenganako konfiantzazko eta laguntzazko harreman bat bezala ulertzen dute. Horrekin lotuta, garapen **moralari** dagokionez, adin hauetako ikasleek arauen beharra ulertzen dute, pertsonak haien artean babesteko tresna diren heinean. Arrazoi horregatik pertsonak jokatzeko dituzten arrazoi eta intentzioei garrantzi handia ematen diote. Beraz, ikaskideen artean dituzten elkarrekintzek berebiziko garrantzia hartzen dute.

Azkenik, etapa honetako ikasleek duten **hizkuntza** garapenari dagokionez, ikasleen hiztegia nabarmen aberasten da, kontzeptu berriak osatzen hasten dira eta esaldien konplexutasun maila handitzen doa.



## **6.2.Arazo-egoera:**

**A.Testuingurua:** Gasteizko Crescendo Musika Elkarteko abeslariari jarrera sexisten eta genero bereizketaren inguruko galdetegi bat pasa eta gero, genero bereizgarrietan eta kirolarekiko portaeran hainbat jarrera sexista behatu dira.

**B. Arazoa:** Nahiz eta eskolan zein gizartean sexismoaren eta genero bereizketaren lanketa areagotu den, genero bereizgarrietan eta kirolari dagozkien ezaugarrietan oraindik gabezia batzuk ikusten dira. Nola lortu daiteke gabezia horien lanketa egitea? Gorputz Hezkuntzako saioetan eta kirolean jarrera berdina daukate genero ezberdinetako pertsonak? Askatasunez aukeratzen dituzte kirol praktikak edo gizartean ematen diren genero estereotipoak jarraitzen dituzte?

### **C. Helburua:**

- Gorputz Hezkuntzan eta kirolean ematen den genero bereizketaren lanketa dantzaren bidez egitea.
- Ikasleek dituzten genero estereotipoen inguruan hausnartzea.
- Kirol ezberdinen keinu, mugimendu eta egoerak praktikatzea.

**D. Zeregina:** Kirol ezberdinen keinuen bidez eta dantza mugimendu ezberdinen bidez koreografia bat sortzea.

## **6.3.Lotura kurrikularra**

Hurrengo atal egun indarrean dagoen Hezkuntza Curriculum Dekretuan (Heziberri 2020) oinarrituta osatu da.

### **Oinarrizko gaitasunak:**

#### **A.Zeharkakoak:**

##### **Elkarbizitzarako konpetentzia:**

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsonen aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.

1. *osagaia*: Hitzeko komunikazioa: hainbat hizkuntzako askotariko testuak ahoz eta idatziz ulertzea eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea.

Norbera izaten ikasteko konpetentzia:

Norberari bizitzako esparru eta egoera guztietan sortzen zaizkion sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egitea da, haiei buruz egiten den balorazioaren arabera sendotu eta egokitzea horiek guztiak, eta, era horretan, etengabeko hobekuntzaren bidez, norbera autorrealizaziora bideratzea, errealizazio horren dimentsio guztietan.

3. *osagaia*: portaera soziala eta morala autorregulatzea.

**B. Diziplinari dagozkionak:**

Konpetentzia motorra:

Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, ongizate osoa lortzen laguntzeko.

3.*osagaia*: Gorputza naturaltasunez edo intentziaz erabiltzea komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko.

Arterako konpetentzia:

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta modu kritikoan balioestea, denbora- eta erabilera-testuingurutan, faktore estetikoek pertsonen eta gizarteen bizitzan duten garrantziaz jabetzeko. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea, eta haien kodeak erabiltzea arte-mezuak ekoitzi eta nork bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko.

2.*osagaia*: Arte-produktuak era pertsonal eta arrazoituan sortzea hainbat egoera eta bizi-esparrutan, emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatze eta komunikatzeko.

<p><b><u>Helburu didaktikoak:</u></b></p> <p>5. Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-bitartekoen berri jakitea, modu estetikoan eta sortzailean landuz, haiek sentitzeko, bizitzeko eta onartzeko, eta mugimendu propio baten bidez pertsonalizatzeko.</p>	<p><b><u>Ebaluazio irizpideak:</u></b></p> <p>7. Talde-konposizioak sortzea ikaskideekin lan eginez, gorputzaren adierazpen-bitartekoak erabiliz, eta estimulu musikalak, plastikoak edo hitzezkoak abiapuntutzat hartuta.</p>
<p><b><u>Edukiak:</u></b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gorputzaren adierazpenaren eta komunikazioaren erabilera.</li> <li>• Gorputzaren bidezko komunikazioa dakarten egoeren parte hartzea.</li> <li>• Harremanen eta komunikazioaren lanketa.</li> <li>• Gatazken kudeaketa.</li> <li>• Ideien sorkuntza.</li> <li>• Elkarlana.</li> <li>• Kirol munduan ematen diren genero diskriminazioen identifikazioa.</li> </ul>	
<p><b>6.4. Metodologia:</b>  <u>Metodologia eta irakats-estiloa:</u></p> <p>Aipatu bezala, dantzaren eta kirol anitzen lanketa egingo da, Gorputz Hezkuntzan eta kirolean dagoen genero bereizketa murrizteko. Horretarako saioetan lanketa progresiboa egingo da, izan ere, dantzaren mundua ezezaguna izaten da ikasle askorentzat. Beraz, proposamenaren hasieran irakats-estiloa aginte estiloan oinarrituko da gehien bat, ikasleak dantzaren munduan murgiltzeko intentzioarekin. Saioak aurrera doazen heinean, ikasleen sormena landu nahi denez, irakats-estiloa aztertze estilora gerturatu joango da; ikasleei askatasun gehiago emanez, sortzaileak eta espontaneoak izateko aukera emanez eta ikaskuntza sakonago bat eskainiz.</p> <p>Metodologiari dagokionez, hasierako saioetan aginte zuzena erabiliko da, ikasleek haien gorputzaren kontrola eta musikaren erritmoa lantzeko. Baina hurrengo saioetan, ikasleen sormena eta autonomia lantzeko, zeregin bat esleituko zaie eta haiek hori</p>	

aurrera eramateko modua, espazioa eta materiala erabakiko dute, hau da, zereginetan oinarritutako ikaskuntza bultzatuko da. Azken saioetan, ikasleei koreografia bat sortzeko proposamena egingo zaie, beraz, irakaslearen eragin minimoa egoteko, azterketa librea egingo dute, ikaskuntza kooperatiboan oinarrituz. Hau da, ikasleek, talde txikietan, koreografia bat sortu beharko dute aurreko saioetan ikasitakoaz baliatuz.

#### Espazio eta denbora:

Espazioari dagokionez, mugimendua eta talde lana eskatzen duen esku-hartze proposamena da, beraz, beharrezkoa da barruko espazio zabal batean aurrera eramatea, adibidez: eskolako gimnasioa. Saioetan ikasleei oinutsik egoteko aukera emango zaie, beraz, espazio epela eta itxia izatea gomendatzen da, zoru egokia duena. Modu honetan ikasleek libreki mugitzeko aukera izango dute, haien segurtasuna bermatzen den bitartean.

Denborari dagokionez, ordu bateko saioak proposatu dira. Saioaren hasieran eta amaieran ikasleei hitza emango zaie, haien hausnarketa bultzatzeko eta haien iritziak zein bizipenak konpartitzeko aukera izateko.

#### Irakasle edo gidariaren papera:

Ikasleen sormena garatzeko garrantzitsua da irakaslearen eragina ahalik eta gutxienekoa izatea. Beraz, irakasleak sortzera animatuko ditu ikasleak eta beharrezkoa denean laguntza eskainiko die. Horrez gain, gorputz adierazpeneko saioetan sortzen den klima egokia izan behar da. Saioan konfiantzazko eta segurtasuneko giroa lortu behar da, ikasleek askatasunez mugitzeko eta beldurrik gabe aritzeko.

Bestalde, genero estereotipoen lanketa egitea proposatzen da, beraz, irakasleak ematen dituen mezuekin kontuz ibili behar da. Hau da, ikasleen sormena eta espontaneotasuna ez mugatzen edo baldintzatzen saiatu beharra dago.

#### Programa aurrera eramateko iradokizunak:

Saio guztietan musikarekin lan egingo denez, abestien aukeraketa egokia egitea funtsezkoa da. Erritmoa lantzen den jardueretan abestien tempoa argi markatu behar da eta hauen abiadura ere kontuan hartu behar da. Abestiek ematen dituzten mezuak ere kontuan hartu beharrekoak dira, hau da, ikasleak hezteko helburua duen espazio batean egiteko proposamena den heinean, abestien letrak egokiak izan behar dira, bai mezuari dagokionez zein hizkuntzari dagokionez.

## **6.5.Jardueren sekuentzia:**

(ikus II.eranskina)

### 1.SAIOA: Erritmoa zainetan

Lehenengo saio honetan ikasleak musika ezberdinen erritmoekin jolastea proposatzen da, besteak beste, musikaren erritmora desplazamenduak egitea, banaka zein binaka. Ostean, bikoteetan eta talde txikietan ispiluaren dinamikan aritzea proposatzen da.

### 2.SAIOA: Kirol anitzak ezagutzen

Ikasleak talde txikietan kokatuko dira eta hainbat kirolen errepresentazioak egitea proposatzen da. Proposatzen diren kirolak anitzak izango dira: ezagunak, ezezagunak, normalean mutilei zuzendutakoak, normalean neskei zuzendutakoak... Saioari amaiera emateko, talde bakoitzak aukeratutako bi kirolen errepresentazioak talde guztiaren aurrean egingo ditu.

### 3.SAIOA: Kirolek eta dantzek bat egin dute!

Saio honetan ikasleek sormena landuko dute dantza pauso ezberdinak sortzen eta kirolekin lotzen diren bitartean. Talde txikietan pauso edo dinamika ezberdinak sortzen saiatuko dira eta kirol ezberdinen keinu zein mugimenduak gehitzen saiatuko dira, kirolen mundua eta dantzen mundua lotzeko asmoz.

### 4.SAIOA: Gure koreografia sortzen

Aurreko egunean sortutako mugimendu eta pausoetaz baliatuta ikasleak talde txikietan kokatu eta koreografia bat sortzeko proposamena luzatuko da.

### 5.SAIOA: Emanaldi eguna

Aurreko saioan prestatutako koreografia entseiatu eta azken prestaketak egin eta gero, talde handiaren aurrean aurkeztuko dira. Amaieran, esku hartzearen hausnarketa bat bultzatuko da eta hasieran pasatako galdetegia pasako da erantzunetan aldaketaren bat eman den behatzeko.

### **6.6.Ebaluazioa:**

Proposamen honen feedbacka lortzeko, ebaluatzeko adierazleak eta tresnak zehaztuko dira hurrengo atalean. Ebaluaketa formatibo bat egitea proposatzen da, hau da, ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak hobetzeko ebaluaketa bat (López et al., 2006). Ebaluaketa honen helburua ez da ikaslea kalifikatzea, baizik eta ikasleei hobetzen laguntzea eta irakasleen lana hobetzeko tresnak eskaintzea. Bestalde, ebaluaketa partekatua izatea komeni da, ikasleen eta irakasleen arteko elkarrizketa bultzatzen duena eta erabakiak elkarrekin hartzeko balio duena (Lopez et al., 2006).

Beraz, proposamen honetan, Heziberri 2020 curriculumean oinarritutako ebaluaketa formatibo eta partekatua erabiltzea erabaki da. Horretarako, bi motatako ebaluazioa egingo da: irakasleak egiten duen ebaluazioa eta ikasleek egingo duten autoebaluazioa eta koebaluazioa.

Ebaluaketak proposamenaren hasieran eta amaieran eramango dira aurrera. Ikasleek egingo duten autoebaluaketari dagokionez, alde batetik, esku-hartzearen hasieran ikasleen aurrezagutzak identifikatzeko ebaluaketa egingo da eta beste aldetik, saio bakoitzaren amaieran ikasleek egindako saioaren ingurukoari buruz hausnartzeko autoebaluaketa osatuko da. Ikasleen koebaluaketari dagokionez, proposamenaren amaieran osatuko da eta taldekideekin egindako lanaren inguruan hausnartzeko aukera eskainiko da.

### **A.Adierazleak:**

Ebaluaketa aurrera eramateko erabiliko diren lorpen adierazleak irakasleak jarraituko duen errubrikan ezarriko dira eta Heziberri 2020 Curriculum Dekretuan oinarrituta egongo dira.

#### Ebaluazio-irizpideak:

- Talde-konposizioak sortzea ikaskideekin lan eginez, gorputzaren adierazpen-bitartekoak erabiliz, eta estimulu musikalak abiapuntutzat hartuta.
- Taldean sortu daitezkeen gatazkak elkarlanean konpontzea eta norberaren ikuspuntua azaltzeko gai izatea.
- Gizartean eta kirol munduan genero ezberdinen eskubide-berdintasuna aldarrikatzea eta errespetatzea.

### Lorpen adierazleak:

- Dantza eta kirolak bateratzen dituzten koreografia xumeak sortzen eta egiten ditu.
- Gorputza lasaitasunez, desinhibizioz eta berezko estilo batez mugitzen du, adierazpen-elementu bat den heinean.
- Kirol munduan ematen diren genero bereizketa eta diskriminazio egoerak identifikatzen ditu eta horien inguruan hausnartzen du.
- Taldeko kide bakoitzaren gaitasunak eta adierazpenak onartu eta errespetatzen ditu.

### **B. Tresnak:**

Irakasleak aurrera eramango duen ebaluazioa errubrika baten bitartez egingo da. Bertan aztertu eta ebaluatu beharreko alderdiak adieraziko dira eta saio guztietarako berdina izango da. Horrez gain, ikasleengandik jasotzen dituen bai saio bakoitzeko autoebaluaketak zein taldeko koebaluaketak hartuko ditu kontuan.

Ikasleek egingo duten ebaluaketari dagokionez, autoebaluaketa izango da, hau da, ikasle bakoitzak bere burua eta saioa ebaluatuko du luzatuko zaion taula baten bidez. Bi motatako autoebaluaketak egingo dituzte, alde batetik, esku-hartzearen hasieran aurrezagutzen autoebaluaketa bat eta bestetik, saio bakoitzaren amaieran beteko dutena. Azken ebaluaketa hau kuantitatiboa izango da, izan ere zenbakien bidez erantzun beharko dituzte galderak.

Bestalde, koreografiak sortzeko momentuan talde txikietan lan egingo dutenez, emanaldiaren egunean koebaluaketa taula bat banatuko zaie talde lan hori eta haien taldekideak ebaluatzeko (ikus III.eranskina).


## 7.PROPOSAMENAREN EBALUAZIOA

Proposatutako esku hartzea ezin izan denez ikasleekin aurrera eraman, eta beraz, ezin izan denez haien *feedbacka* jaso, diseinua ebaluatzeko beste erreminta bat erabili da. Proiektu berritzaileak ebaluatzeko dekalogo bat erabili da (Telefónica Fundación, 2014), hau da, proiektu bat berritzailea izateko 10 irizpide zehazten dituen ebaluazio tresna bat. Ebaluazio hau errubrika baten bidez egin da, non irizpide bakoitzarengatik lau maila zehazten diren: 1.maila; gabezia, 2.maila; baxua, 3.maila; bitartekoa, 4.maila; altua. Hauek dira zehazten diren 10 irizpideak:

1. **Bizitza errealerako ikaskuntza esperientziak.** Etorkizuneko bizitzarako eta formakuntzarako eraldaketarako aukerak eskaintzen ditu.
2. **Ikaskuntza metodologia aktiboak.** Ikasleetan oinarritzen da eta taldeko harremanak sustatzen ditu.
3. **Ikaskuntza eskolatik haratago.** Hezkuntza testuinguru formalak zein informalak lotzen ditu.
4. **Lankidetzaren sustatzen duen ikaskuntza esperientziak.** Elkarlana sustatzen du eta hezkuntza komunitatearen parte hartzea sustatzen du.
5. **C21 ikaskuntza.** XXI.mendeko kompetentziak eskuratzea sustatzen du.
6. **Ikaskuntza errealerako esperientziak.** Ikaskuntza esperientzia esanguratsuak eta arlo emozionalaren garapena sustatzen ditu.
7. **Erronketan oinarritutako ikaskuntza esperientzia.** Proiektuak eskaintzen dituen jarduerak irekiak dira eta sormenaren garapenean laguntzen dute.
8. **Ebaluaketa ikaskuntzarako tresna.** Ikaskuntza prozesua hobetzeko tresna bezala erabiltzen da, koebaluaketa eta autoebaluaketa kontuan hartuz.
9. **Ikaskuntza digitalerako esperientziak.** IKTen erabilera kritikoa sustatzen du.
10. **Ikaskuntza jasangarrirako esperientziak.** Proiektua hobetzeko eta garatzeko tresnak zein baliabideak diseinatu dira.

Aipatutako hamar ebaluazio-irizpideak zehaztu eta gero, dekalogo honek proposatzen duen errubrikaren arabera lan honetako esku-hartze proposamenaren ebaluaketa egin da, irizpide bakoitzari 1etik 4rako zenbaki bat zehaztuz eta hurrengo eskema lortuz (1.irudia):





*1.irudia: Programaren ebaluaketaren errubrikaren emaitzen bilketa (Telefónica Fundación, 2014).*

## 8. ONDORIOAK

Aurreko atalean egindako ebaluaketa aztertuz diseinatutako proposamenaren inguruan hainbat ondorio atera daitezke. Diseinatutakoaren gabeziarik nabariena ikaskuntza digitalaren arloan behatu daiteke, izan ere, proposamenean zehar ez da IKTen erabilera esanguratsurik ematen, ikasleei proposatutako zeregina ez da tresna digitaletan oinarrituko. Lanerako tresna haien gorputza izango da eta ikasleek zehazten dituzten helburuak lortzeko horren erabilpen egokia sustatuko da.

Bigarren maila batean C21 konpetentziak aurki daitezke, hau da, XXI. menderako konpetentziak. Esku-hartze proposamen honen bidez ez dira bereziki ikasleen pentsatzeko estrategiak eta errutinak lantzen, ikasleek egiten ikasiko dutelako. Baina ikasleen pentsamendu kritikoari garrantzi handia ematen zaio eta haien hausnarketa bultzatzen da saio guztietan.

Bestalde, proposamen honen bidez bizitza errealean eta eskolan ematen diren hainbat genero jarrera desegokien lanketa egiten da. Beraz, hezkuntza formalaren eta ez formalaren lotura dagoela esan daiteke. Hala ere, esku hartzearen bitartez ikasitakoa eskolatik kanpo aplikatzeko zailtasunak izan ditzakete. Horregatik, ikasleei lan honen

bitartez ikasitakoa eskolatik kanpo aplikatzeko tresnak edo baliabideak eskaintzea ondo legoke, eskolan eman den ikaskuntza isolatu bat izan ez dadin.

## **9.MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK**

Proposamen honen diseinua 5 saioetan egiteko diseinatu da, beraz epe laburreko diseinu bat da. Horregatik, diseinu honen helburu nagusiak lortu eta epe luzeago batean bermatzeko ezinbestekoa da landutakoari jarraitasun bat ematea, Gorputz Hezkuntzako saioetan genero diskriminazioa baztertuz eta ikasle guztiei aukera berdinak eskainiz.

Horrez gain, esku-hartze proposamen honek hainbat muga ditu eta hainbat hobetzeko proposamen egin daitezke. Alde batetik, proposamen honen helburu nagusietako bat genero bereizketaren inguruko hausnarketa egitea da eta Gorputz Hezkuntzako saioetan honi eskaintzen zaion denbora nahiko murrizta izan ohi da. Izan ere, gaiaren inguruan hausnarketa sakon bat egiteko baliteke denbora gehiago behar izatea eta ez bakarrik saioaren azken bost edo hamar minutuak eskaintzea. Baina denbora gehiago eskainiz gero, ikasleen konpromezu motorra galdu daiteke eta Gorputz Hezkuntzak duen ezaugarri bereizgarriena galtzea ekar dezake: mugimendua.

Ikasleek betetako galdetegian ikusi da bereizketazko genero jarrera askoren lanketa egin den arren, oraindik lan asko dagoela egiteke hainbat esparrutan. Hala ere, galdetegia bete duten ikasleen lagina ikusita, parte hartzaileen gehiengoa neskak izan dira. Normalean bazterketa pairatzen dutenak haiek izaten direnez, baliagarria izan da haien iritzietatik abiatzea. Baina genero aldetik lagina anitzagoa izanda baliteke beste emaitza batzuk lortzea eta beraz, proposamenaren diseinua eta nondik norakoa aldatzea.

Bestalde, eskolak eskaintzen duen espazioak berebiziko garrantzia dauka. Horrelako proposamen bat aurrera eramateko, ikasleen segurtasuna bermatze aldera, leku epel eta segurua bat izatea beharrezkoa da. Horrez gain, proposamenaren saio guztietan musikaren erabilpena beharrezkoa da eta horrek lekuaren akustika egokia eta musika ekipo bat edo bestelakoak izatea eskatzen du. Eskoletan dauden instalazioak oso anitzak dira eta guztiek ez dituzte baliabide berdinak eskaintzen, beraz, musika ekipo egoki bat ez izateak edota saioak kalean eman beharrak proposamena modu egoki batean aurrera eramatea oztopatu dezake.

Ondorio gisa, Gorputz Hezkuntzak bere ekarpena egin dezake gizarteko hainbat esparrutan ematen den genero bereizketa murrizten joan dadin, adibidez; ikasle guztien

parte hartzea lortzen saiatuz eta ikaskuntza jarduera alternatiboak eta anitzak proposatuz. Bestalde, irakasleek eta hezitzaileek ikasleen adierazpen eta izaera guztiak onartu behar dituzte eta horiek garatzeko espazioak eta momentuak eskaini. Izan ere, genero estereotipoetara egokitzen diren jardueren eta praktiken hesia gainditu behar da eta ikasle guztiak edozein jarduera egitera bultzatu. Proposamen honen bidez, Heziketa Fisikoan hain ohikoa ez den baliabide bat erabiltzen da ikasleek kirolean pairatu dezaketen bereizketa edo bazterketaren lanketa bat egiteko. Dantzaren ez ohikotasun horrek normalean Gorputz Hezkuntzan parte hartze murriztagoa duten ikasleen inplikazioa ekar dezake eta, ondorioz, ikaskuntza esparru berriak sortu.

## 9.ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan azartzen duena.

Alvariñas M., Fernandez, M. de los A. eta Lopez, C. (2009). Actividad física y percepciones sobre deporte y género. *Revista de investigación en educación*, 6, 113-122.

Bain, L. (1990): «A Critical Analysis of the Hidden Curriculum in Physical Education», en David Kirk y Richard Tinning (eds.): *Physical Education, Curriculum and Culture: Critical Issues in the Contemporary Crisis*, pp. 23-42, Londres, Falmer Press.

Blandez, J., Fernandez, E. eta Sierra, M.A. (2007). Estereotipos de género, actividad física y escuela: La perspectiva del alumnado. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 11(2).

Cáceres, M. (2010). La expresión corporal, el gesto y el movimiento en la edad infantil. *Revista digital para profesionales de la enseñanza*, 7.

Castillo, E. eta Rebollo, J. A. (2009). Expresión y comunicación corporal en Educación Física. *Revista Wanceulen E.F.*, 5, 105-122.

Crawford, M. eta Unger, R. (2004). *Women and Gender*. Mc Graw Hill, New York.

Devís, J., Fuentes, J., eta Sparkes, A. C. (2005). ¿ Qué permanece oculto del currículum oculto? Las identidades de género y de sexualidad en la educación física. *Revista iberoamericana de educación*, 39, 73-90.

Lahoz, L. (2019). Analisis de los estereotipos de genero en Educacion Fisica: Una propuesta coeducativa. [Gradu Amaierako Lana]. Universidad de Zaragoza, Facultad de Ciencias Humanas y de la Educacion, España.

López, V. M., Monjas, R., Gómez, J., López, E. M., Martín, J. F., González, J., ... eta Marugán, L. (2006). La evaluación en educación física. Revisión de modelos tradicionales y planteamiento de una alternativa. La evaluación formativa y compartida. *RETOS. Nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, 10, 31-41.

Maganto, C. eta Cruz, S. (2010). Desarrollo físico y psicomotor en la etapa infantil. *Tolosa, San Sebastián*.

Moreno, J. A., eta Cervelló, E. (2004). Influencia de la actitud del profesor en el pensamiento del alumno hacia la Educación Física. *Revista Internacional de Ciencias Sociales y Humanidades, SOCIOTAM*, 14 (1), 33-51.

Muñoz, A., Campos, J. M., Toro, E. eta de Los Fayos, E. (2012). Programa para el desarrollo de actitudes de igualdad de género en clases de educación física en escolares. *Educación XX1*, 15 (2), 271-291.

Nateras, F. eta Mendo, A. (2014). Intervención para la reducción de la discriminación por sexo en las clases de educación física según los contenidos y agrupamientos utilizados. *Revista Española de Educación Física y Deportes*, 404, 27-38.

Piedrafita, M. (2014). Prácticas de género invisibles en la escuela. *Cuadernos de pedagogía*, 441, 97-100.

Recio, P.; Cuadrado, I. y Ramos, E. (2007). Propiedades psicométricas de la escala de detección de sexismo en adolescentes (DSA). *Psicothema*, 19 (3), 522-528.

Sánche, I., Ordás, R. eta Lluch, Á. (2013). Expresión corporal. Una práctica de intervención que permite encontrar un lenguaje propio mediante el estudio y la profundización del empleo del cuerpo. *Retos. Nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, 23, 19-22.

Saucedo, D. C. N., & Álvarez, M. G. L. (2010). Educación y discriminación de género. El sexismo en la escuela primaria. Un estudio de caso en Ciudad Juárez. *El cotidiano*, 164, 47-52.

Soler, S.(2011). Actitudes y relaciones de niñas y niños ante contenidos de la Educación Física de primaria estereotipados por el género: el caso del fútbol. *Colección ICD: Investigación en Ciencias del Deporte*, 46.

Telefónica, F. (2014). *Decálogo de un proyecto innovador: guía práctica Fundación Telefónica*. Observatorio Profuturo. Webgune honetatik berreskuratua: <https://observatorio.profuturo.education/blog/2014/09/12/decalogo-de-un-proyecto-innovador-guia-practica-fundacion-telefonica/>.

Tinning, R. (1992). *La educación física, la escuela y sus profesores*. Valencia: Universidad de Valencia.

## 10.ERANSKINAK


### I.ERANSKINA: Ikasleek betetako inkesta

Lehen Hezkuntzarako Jarrera Sexisten galdetegia (Muñoz, Campos, Toro eta de Los Fayos, 2012).		
<b>X batekin markatu zuk egiten duzuna islatzen duen erantzunean.</b>		
<b>GALDERAK</b>	<b>BAI</b>	<b>EZ</b>
1. Orokorrean, neskak mutilak baino ahulagoak dira.		
2. Langabezi gutxiago egongo litzateke emakumeek lan egingo ez balute.		
3. Emakumeen tokia etxea da.		
4. Neska batek mutil batek egiten dituen gauza berdinak egin beharko lituzke (adibidez, futbolera jolastea, bideo jokoetara jolastea, lagunekin geratu, etab.).		
5. Amek bakarrik dakite seme-alabak hazten.		
6. Neskek mutilek baino errazago barkatzen dute.		
7. Aitak dirua ekarri behar du familiara.		
8. Aita etxeko nagusia da eta amak berak dioena errespetatu behar du.		
9. Aitak etxeko lanak egiten ditu (adibidez: kristalak garbitu, arropa lisatu, garbitu,...).		
10. Neskek ama etxeko lanetan lagundu behar dute.		
11. Amak etxeko lanak egiteaz arduratu daitezkeen bakarrak dira.		
12. Lan egiten duten amek ez diote arretarik jartzen haien familiari.		
13. Aitak familiako erabaki garrantzitsuenak hartu behar ditu.		
14. Neskek hobeto pairatzen dute mina.		
15. Neskak traketsagoak dira kiroletan mutilak baino.		
16. Mutilak kirolean trebeak dira.		
17. Zilegi da amek haien familien sostengu ekonomikoa izatea.		
18. Neskek mutilen lan aukera berdinak izan beharko lituzkete.		
19. Neskak oso trebeak izan daitezke futboleant.		




20. Amek seme-alabak zaindu behar dituzte gaixotzen direnean.		
21. Lanbideetan buruzagi diren emakume gehiago behar dira.		
22. Hobe da amek seme-alaben pixoihalak aldatzea.		
23. Amak etxetik kanpo lan egiten badu aitarekin banatu behar ditu etxeko lanak.		
24. Mutilak dantzari finak izan daitezke.		
25. Gizonak prestatuago daude negozioetarako eta politikarako emakumeak baino.		
26. Neskei jolasetan agintzea gustatzen zaie.		




## II.ERANSKINA: Esku-hartze proposamenaren saioak

### 1.SAIOA: ERRITMOA ZAINETAN



<b>KURTSOA:</b> 4.,5. eta 6.maila	<b>ESPAZIOA:</b> Eskolako gimnasioa	<b>SAIO zbk:</b> 1	<b>DATA:</b>
<b>MATERIALA:</b> ordenagailua, musika ekipoa edo bozgorailua eta baloi (edo mugikari) bat.			
<b>HELBURUA:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Norbere gorputza kontrolatzea.</li><li>• Taldekideen aurrean askatasunez mugitzea.</li><li>• Hainbat erritmo jarraitzea eta ezberdintzea.</li></ul>			
<b>JARDUERAK</b>			
<b>Jardueraren izena eta balizko denbora</b>	<b>Deskribapena</b>	<b>Marraskia</b>	
<b>HASIERAKO FASEA</b>			
<b>1.Saioaren aurkezpena</b> <b>10min</b>	<p>Irakasleak saioan egingo denaren aurkezpena egin eta gero, ikasleen aurrezagutzak zeintzuk diren ezagutzeko autoebaluaketa taula bat banatuko die. Ondoren, talde handian ikasleei hainbat galdera luzatuko dizkie saioaren gaien murgiltzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Nori gustatzen zaio dantzatzea? Zein dantza estilo gustatzen zaizue?</li><li>- Dantzatzea nesken gauza dela uste duzue? Zergatik?</li><li>- Zer da garrantzitsuena dantzatzerako orduan?</li></ul>		
<b>ATAL NAGUSIA</b>			





<p><b>2.Musikaren erritmora (banaka)</b></p> <p><b>10min</b></p>	<p>Ikasleak banaka espaziotik desplazamenduak egiten hasiko dira, bakoitzak erabakitzen duen moduan. Behin desplazamenduen dinamika hartuta, irakasleak hainbat argibide emango dizkie, adibidez: musikaren erritmora ibiltzea, astiro ibiltzea, azkarrago ibiltzea. Musika estilo ezberdinak jarri daitezke, erritmo ezberdinak dituztenak.</p> <p>Hurrengo urratsa desplazamenduak egiteko moduak aldatzeko aukera emango zaie. Beraz, irakasleak musika aldatzen duen bakoitzean ikasleak desplazatzeko modua aldatuko du.</p>	
<p><b>3.Musikaren erritmora (binaka)</b></p> <p><b>10min</b></p>	<p>Aurreko jardueraren antzeko dinamika da, baina kasu honetan ikasleak binaka arituko dira.</p> <p>Bikoteak egiteko, eta aurreko dinamikarekin lotura izateko, ikasleak ibiltzen doaz bitartean irakasleak musika geldituko du eta ikasleak binaka kokatuko dira. Musika berriz entzuten dutenean bakarka ibiltzen jarraituko dute. Dinamika hau hainbat aldiz errepikatuko da, azkeneko aldia jarduera honetarako bikoteak sortuz.</p> <p>Bikoteak musikaren erritmora ibiltzen saiatuko dira, haien arteko koordinazioa lortuz. Jarraian, irakasleak argibideak ematen hasiko da: bata bestearen alboan ibiltzea, bata bestearen atzean, azkarrago, mantsago...</p> <p>Azkenik, bata bestearen atzean jarrita, aurrekoak egiten duen desplazamendua kopiatuko du eta alderantziz.</p>	
<p><b>4.Ispiluaren jolasa (binaka )</b></p> <p><b>5min</b></p>	<p>Musika entzuten den bitartean, ikasleak bikoteka kokatuko dira bata bestearen aurrean. Ikasleetako bat dantzaria izango da eta bestea ispilua, beraz dantzariak egiten duena kopiatzen saiatu beharko da. Paperak aldatzen joango dira biek rol guztiak probatzeko.</p>	

	Jardueraren bitartean musika estiloak aldatuko dira ikasleek mugimendu ezberdinak esperimentatzeko.	
<b>5.Ispiluaren jolasa (launaka)</b> <b>5min</b>	Aurreko dinamika berdina errepikatuko da baina bi bikote elkartzuz. Beraz bat dantzaria izango da eta hiru ispilu izango ditu.	
<b>LASAIKETA FASEA</b>		
<b>6.Energiaren bola pasatzen</b> <b>5min</b>	Talde handian kokatuta borobil bat osatuko da. Borobilaren kide batek baloi bat izango du, energiaren bola. Kide guztien artean musikaren erritmora energia pasatuko dute. Musika erritmo ezberdinekin jolastuko da.	
<b>5. Amaierako hausnarketa</b> <b>10min</b>	Ikasleek autoebaluaketa fitxa beteko dute eta gero irakasleak talde handian hainbat galdera luzatuko ditu saioaren inguruan hausnartzeko: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Saioan orokorrean gustura hartu duzue parte?</li> <li>- Noiz sentitu zarete gusturago?</li> <li>- Zein izan da saioaren zatirik zailena?</li> <li>- Saioaren zatiren bat aldatuko zenukete?</li> </ul>	
<b>HAUSNARKETA</b>		
<b>AMAIERAKO HAUSNARKETA/ HOBETZEKOA ETA ONDORIOAK:</b>		

## 2.SAIOA: KIROL ANITZAK EZAGUTZEN

<b>KURTSOA:</b> 4.,5. Eta 6.maila	<b>ESPAZIOA:</b> Eskolako gimnasioa	<b>SAIO zbk:</b> 2	<b>DATA:</b>
<b>MATERIALA:</b> ordenagailua, musika ekipoa edo bozgorailua, kirolen izenen papertxoak eta kirol ezberdinen materiala ( <i>atrezzo</i> ).			
<b>HELBURUA:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Talde txikietan lan egitea eta erabakiak hartzea.</li> <li>• Kirol anitzak ezagutzea eta hauen keinuak edo egoerak sortzea.</li> <li>• Kirol ezberdinen errepresentazioak egitea.</li> </ul>			
<b>JARDUERAK</b>			
<b>Jardueraren izena eta balizko denbora</b>	<b>Deskribapena</b>	<b>Marraskia</b>	
<b>HASIERAKO FASEA</b>			
<b>1.Saioaren aurkezpena</b>  <b>7min</b>	<p>Irakasleak saioan egingo denaren aurkezpena egingo du eta ikasleei hainbat galdera luzatuko dizkie:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nortzuk egiten duzue kirolen bat? Zein?</li> <li>- Zuen ustez ba al daude neskentzat bereziki zuzenduta dauden kirolak? Eta beste batzuk mutilentzat zuzenduta daudenak?</li> <li>- Zergatik uste duzue kirolak bereizten direla?</li> </ul>		
<b>2.Beldar-katea</b>  <b>13min</b>	<p>Ikasleak talde txikietan kokatuko dira (5-6 pertsona) eta ilara bat osatuko dute. Hasieran musikaren erritmora ibiltzen hasiko dira eta ondoren aurrekoak markatzen duen erritmoa jarraituko dute.</p> <p>Erritmora ibiltzen jarraitzen duten bitartean, aurrekoak nahi dituen mugimenduak egingo ditu eta beldarraren buztanak mugimendu horiek kopia beharko ditu.</p>		

	<p>Abestia aldatzen den bakoitzean beldarraren burua atzea joango da eta hurrengo pertsonari tokatuko zaio.</p> <p>Taldearen arabera, talde txiki horiek talde handiagoetan elkartu daitezke eta dinamika errepikatu.</p>	
<b>ATAL NAGUSIA</b>		
<p><b>2.Kirolen munduan barrena.</b></p> <p><b>25min</b></p>	<p>Espazioaren erdian uztai bat paper zati askorekin kokatuko da. Paper bakoitzean kirol baten izena jarriko du (kirol anitzak sartuko dira: ezagunak, ezezagunak, neskekin lotzen direnak, mutilekin lotzen direnak...).</p> <p>Ikasleak talde txikietan kokatuko dira eta espazioaren zati bat hartuko dute. Taldekideetako batek uztaiko paper bat hartuko du eta bere taldera eramango du. Taldeak paper horretan jartzen duen kirola adierazten saiatu beharko da (adierazpena hitzik gabekoa izan beharko da).</p> <p><i>ALDAERA:</i> behin jarduera aurreratua egonda, irakasleak uztaiaren barruan papertxo zuriak sartuko ditu eta ikasleei azalduko die horrelako papertxo bat hartzerakoan askatasuna izango dutela haiek nahi duten kirola aukeratzeko.</p>	
<p><b>3.Zein kirol da?</b></p> <p><b>5min</b></p>	<p>Behin aurreko jardueran hainbat kirol egin eta gero, taldeak bi aukeratu beharko ditu eta gainontzeko taldekideen aurrean egin, publikoari zein kirol den esan gabe. Publikoak zein kirol den asmatu beharko du. Modu honetan ikasle guztien inplikazioa lortzen da.</p>	

## LASAIKETA FASEA

### 5. Amaierako hausnarketa

5min

Ikasleek autoebaluaketa fitxa beteko dute eta gero irakasleak talde handian hainbat galdera luzatuko ditu saioaren inguruan hausnartzeko:

- Saioan orokorrean gustura hartu duzue parte?
- Noiz sentitu zarete gusturago?
- Zein izan da saioaren zatirik zailena?
- Saioaren zatiren bat aldatuko zenukete?









## HAUSNARKETA

### AMAIERAKO HAUSNARKETA/ HOBETZEKOA ETA ONDORIOAK:



### 3.SAIOA: KIROLEK ETA DANTZEK BAT EGIN DUTE!

<b>KURTSOA:</b> 4.,5. eta 6.maila	<b>ESPAZIOA:</b> Eskolako gimnasioa	<b>SAIO zbk:</b> 3	<b>DATA:</b>
<b>MATERIALA:</b> ordenagailua, musika ekipoa edo bozgorailua.			
<b>HELBURUAK:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Talde txikietan lan egitea eta erabakiak hartzea.</li> <li>• Dantza mugimenduak sortzea eta praktikatzea.</li> <li>• Kirol anitzen keinuak edo egoerak sortzea eta musika baten erritmora egiteko gai izatea.</li> <li>• Taldekideen mugimenduak onartzea eta errespetatzea.</li> </ul>			
JARDUERAK			
<b>Jardueraren izena eta balizko denbora</b>	<b>Deskribapena</b>	<b>Marraskia</b>	
HASIERAKO FASEA			

<p><b>1.Saioaren aurkezpena</b> <b>5min</b></p>	<p>Aurreko saioetan egindakoa gogoratu eta gero, saioan egingo denaren aurkezpena egingo du.</p>	
<p><b>2.Puntuen bilaketa</b> <b>10min</b></p>	<p>Musika dagoen bitartean ikasleak espaziotik mugitzen hasiko dira. Musikaren erritmoan ibiltzen hasiko dira eta ondoren irakasleak begiekin espazioko puntu bat bilatzeko eskatuko die. Behin puntu bat bilatuta haraino joan beharko dira, ahalik eta desplazamendu zuzenena egiten. Puntura ailegatutakoan beste puntu bat bilatuko dute eta haruntza joango dira. Betiere musikaren erritmoa jarraituz.</p> <p>Hurrengo aldaera, puntu aldaketa abestiaren 8 tempo pasatzen direnean egitea izango da. Beraz, irakasleak abestia jarriko du eta 8 tempo zenbatuko dituzte, hauek pasatakoan puntu aldaturiko dute. Hasieran, guztiok elkarrekin zenbatu dezakete eta pixkanaka pixkanaka banaka egiten hasiko dira.</p>	
<p><b>ATAL NAGUSIA</b></p>		
<p><b>3.Gurutzean dantzatzen</b> <b>10min</b></p>	<p>4 ikasleek gurutze bat osatuko dute, denek albo berdinerara begiratu.</p> <p>Gurutzearen aurreko aldean dagoena musika entzuten den bitartean mugituko da eta gainontzekoek mugimendu horiek kopia beharko dituzte. Mugimenduak 8 tempotan egingo dira eta gero eskuinera biratuko dira, beraz, aurreko aldean dagoen pertsona beste bat izango da.</p>	


<p><b>4.Gurutzean kirolak gehitzen</b> <b>15min</b></p>	<p>Aurreko jarduerako dinamika berdina errepikatuko da baina kasu honetan kirol ezberdinekin lotuta dauden mugimenduak burutzen saiatu beharko dira. Betiere musikaren erritmoa jarraituz.</p>	
<p><b>LASAIKETA FASEA</b></p>		
<p><b>5.Robotak lotara</b> <b>5min</b></p>	<p>Ikasleak libreki espaziotik mugituko dira musikaren erritmora eta robot batzuk direla esango zaie. Robot hauek bateria gabe gelditzen joango dira, gero eta mantsoago mugitzen hasiko dira. Energia galtzen doazen heinean lau hankatan ibiliko dira, gero arrastaka ibiliko dira eta azkenik, lurrean etzanda amaituko dute. Behin lurrean etzanda arnasketa koziante batzuk egingo dituzte irakaslearen laguntzaz.</p>	
<p><b>6. Amaierako hausnarketa</b> <b>10min</b></p>	<p>Ikasleek autoebaluaketa fitxa beteko dute eta gero irakasleak talde handian hainbat galdera luzatuko ditu saioaren inguruan hausnartzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Saioan orokorrean gustura hartu duzue parte?</li> <li>- Noiz sentitu zarete gusturago?</li> <li>- Zein izan da saioaren zatirik zailena?</li> <li>- Saioaren zatiren bat aldatuko zenukete?</li> </ul>	
<p><b>HAUSNARKETA</b></p>		
<p><b>AMAIERAKO HAUSNARKETA/ HOBETZEKOA ETA ONDORIOAK:</b></p>		

#### 4.SAIOA:GURE KOREOGRAFIA SORTZEN


<b>KURTSOA:</b> 4.,5. eta 6.maila	<b>ESPAZIOA:</b> Eskolako gimnasioa	<b>SAIO zbk:</b> 4	<b>DATA:</b>
<b>MATERIALA:</b> ordenagailua, musika ekipoa edo bozgorailua eta kirol ezberdinen materiala (atreztoa).			
<b>HELBURUAK:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Talde txikietan lan egitea eta erabakiak hartzea.</li> <li>• Taldekideen mugimenduak onartzea eta errespetatzea.</li> <li>• Dantza eta kirolak bateratzen dituen koreografia bat sortzea.</li> </ul>			
<b>JARDUERAK</b>			
<b>Jardueraren izena eta balizko denbora</b>	<b>Deskribapena</b>	<b>Marraskia</b>	
<b>HASIERAKO FASEA</b>			
<b>1.Saioaren aurkezpena</b>  <b>5min</b>	Irakasleak saioan egingo denaren aurkezpena egingo du eta ikasleei hainbat galdera luzatuko dizkie aurreko saioarekin lotura egiteko: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ba al dago kirola eta dantza elkartzeko moduren bat?</li> <li>- Nola egingo zenukete?</li> </ul>		
<b>2.Orkestako zuzendaria</b>  <b>5min</b>	Ikasle taldeak borobil bat osatuko du eta kideetako bat kanpoan geldituko da. Kanpoan dagoen ikaslea gimnasiotik ateratzen den bitartean, taldeko ikasle bat zuzendari izendatuko da. Zuzendariak mugimendu bat egingo du eta gainontzekoek kopiatuko dute. Kanpoan dagoen ikasleari borobilaren erdian kokatzeko eskatuko zaio eta orkestrako zuzendaria zein den asmatu beharko du. Zuzendariak noizbehinka mugimendua aldatuko du.  Behin zuzendaria zein den asmatuta rolen aldaketa egingo da, hau da, beste zuzendari bat eta kanpora ateratzen den beste kide bat aukeratuko da.		



**ATAL NAGUSIA**

<p><b>3.Gure koreografia sortzen</b> <b>30min</b></p>	<p>5-6 pertsonetako taldeak osatuko dira eta koreografia bat sortzea proposatuko zaie. Koreografia horretan dantza pauso ezberdinak hainbat kirolen keinu edota egoerekin elkartzen saiatu beharko dira. Horretarako gimnasioan dagoen materiala eskuragarri izango dute.</p>	
---	---	---



**LASAIKETA FASEA**


<p><b>5. Amaierako hausnarketa</b> <b>10min</b></p>	<p>Ikasleek autoebaluaketa eta koebaluaketa fitxa beteko dute eta gero irakasleak talde handian hainbat galdera luzatuko ditu saioaren inguruan hausnartzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Saioan orokorrean gustura hartu duzue parte?</li> <li>- Noiz sentitu zarete gusturago?</li> <li>- Talde txikian lan egiten gustura aritu zarete edo nahiago duzue banaka koreografia bat sortzea?</li> <li>- Saioaren zatiren bat aldatuko zenukete?</li> </ul>	
---	--	---

**HAUSNARKETA**


**AMAIERAKO HAUSNARKETA/ HOBETZEKOA ETA ONDORIOAK:**

## 5.SAIOA: EMANALDI EGUNA

<b>KURTSOA:</b> 4.,5. eta 6.maila	<b>ESPAZIOA:</b> Eskolako gimnasioa	<b>SAIO zbk:</b> 5	<b>DATA:</b>
<b>MATERIALA:</b> ordenagailua, musika ekipoa edo bozgorailua eta kirol ezberdinen materiala (atrezkoa).			
<b>HELBURUAK:</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Talde txikietan sortutako koreografia aurkeztea.</li> <li>• Taldekideen mugimenduak onartzea eta errespetatzea.</li> </ul>			
<b>JARDUERAK</b>			
<b>Jardueraren izena eta balizko denbora</b>	<b>Deskribapena</b>	<b>Marraskia</b>	
<b>HASIERAKO FASEA</b>			
<b>1.Saioaren aurkezpena</b>  5min	Aurreko saioetan egindakoa gogoratu eta gero, saioan jarraituko den dinamikaren azalpena emango du.		
<b>ATAL NAGUSIA</b>			
<b>2.Koreografiaren azken entsegua</b>	Koreografiaren entsegua eta azken prestaketak egingo dituzte.		

<p><b>3.Emanaldia</b></p>	<p>Talde bakoitzak sortutako koreografia aurkeztuko du.</p>	<p>EMANALDIA!</p> 
---------------------------	---	---

**LASAIKETA FASEA**

<p><b>5. Amaierako hausnarketa</b></p> <p><b>5min</b></p>	<p>Ikasleek autoebaluaketa eta koebaluaketa fitxa beteko dituzte eta gero irakasleak talde handian hainbat galdera luzatuko ditu saioaren inguruan hausnartzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Saioan orokorrean gustura hartu duzue parte?</li> <li>- Noiz sentitu zarete gusturago?</li> <li>- Zein izan da koreografia sortzetik gehien gustatu zaizuen zatia edo momentua?</li> <li>- Uste duzue egindako lana neskek bakarrik egin dezaketela dantza delako?</li> </ul>	
---	---	---

**HAUSNARKETA**

**AMAIERAKO HAUSNARKETA/ HOBETZEKOA ETA ONDORIOAK:**

**III.ERANSKINA: Ebaluazio tresnak**  
**1.IRAKASLEAREN ERRUBRIKA**

Irakaslea hurrengo errubrikaz baliatuko da ikasle bakoitzaren ebaluaketa aurrera eramateko.

<b>LORPEN ADIERAZLEAK</b>	<b>HOBETU BEHAR DU</b>	<b>BIDEAN DAGO</b>	<b>OSO ONDO</b>
<b>Dantza eta kirolak bateratzen dituzten koreografia xumeak sortzen eta egiten ditu.</b>	Nahiz eta koreografiak egiteko gai izan, ez ditu koreografiak sortzen.	Koreografiak sortzea kostatzen zaio baina ez dauka arazorik hauek aurrera eramateko.	Dantza eta kirolak elkartzen dituen koreografiak sortzeko eta egiteko erraztasuna dauka.
<b>Gorputza lasaitasunez, desinhibizioz eta berezko estilo batez mugitzen du, adierazpen-elementu bat den heinean.</b>	Gorputza modu lasai eta natural batean mugitzeko zailtasun handia dauka. Mugimenduak elkartzea eta koordinatzea kostatzen zaio.	Nahiz eta gorputza lasaitasunez eta naturaltasunez mugitzea kostatu, mugimenduak elkartzen eta koordinatzen moldatzen da.	Mugimenduak elkartzeko eta koordinatzeko gai da, gorputza era natural eta lasai batean mugitzen duen bitartean.
<b>Kirol munduan ematen diren genero bereizketa eta diskriminazio egoerak identifikatzen ditu eta horien inguruan hausnartzen du.</b>	Ez ditu kirol munduan ematen diren genero-jarrera diskriminatzaileak identifikatzen eta ez du horien inguruan hausnartzen.	Genero-jarrera desagoki eta diskriminatzaileak identifikatzea kostatzen zaio, baina behin identifikatuta horien inguruan hausnartzeko gai da.	Kiroletan eta gizartean ematen diren genero bereizketa eta diskriminazioak identifikatzeko gai da eta horien inguruan hausnartzeko erraztasuna dauka.
<b>Taldeko kide bakoitzaren gaitasunak, ideiak eta adierazpenak onartu eta errespetatzen ditu.</b>	Ez ditu ikaskideak errespetatzen, ezta haien mugimendu eta adierazpen gaitasunak onartzen.	Kostatzen zaio ikasleekin errespetuzko jarrera bat izatea eta haien gaitasunak onartzea.	Taldekideen gaitasunak, ideiak eta gorputz adierazpenak errespetatzen ditu, bakoitza den moduko a onartuz.

## 2.IKASLEEN AURREZAGUTZEN AUTOEBALUAKETA

Esku hartze proposamenarekin hasi baino lehen ikasleek hurrengo taula beteko dute, landuko den gaiaren inguruko aurrezagutzak identifikatzeko.

<b>GALDERAK</b>	<b>ERANTZUNAK</b>
<i>Kirol munduan genero diskriminazioa edo sexismoa ematen dela uste duzu? Zergatik?</i>	
<i>Neskentzat zuzenduta dauden kirolak daudela uste duzu? Zeintzuk?</i>	
<i>Mutilentzat zuzenduta dauden kirolak daudela uste duzu? Zeintzuk?</i>	
<i>Neskek eta mutilek kirol berdinak egin ditzakete?</i>	
<i>Gorputz Hezkuntzako saioetan jarrera berdina daukate neskek eta mutilek?</i>	
<i>Dantza neskentzat zuzenduta dagoen jarduera bat dela esango zenuke? Zergatik?</i>	

## 3.SAIOEN IKASLEEN AUTOEBALUAKETA

Saio bakoitzaren amaieran ikasle bakoitzak ondorengo taula beteko du, saioan egindakoaren inguruan hausnartzeko.

<b>GALDERAK</b>	<b>1 GUTXI</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5 OSO</b>
<b>Jardueretan gogotsu parte hartu dut.</b>					
<b>Nire taldekideak eta haien ekarpenak errespetatu ditut.</b>					
<b>Behar izan denean nire ideien ekarpenak egin ditut.</b>					
<b>Saioaren arauak errespetatu ditut.</b>					
<b>Saioan egindako jarduerak interesgarriak iruditu zaizkit</b>					
<b>Orokorrean saioa gustatu zait.</b>					
<b><u>Hobetzeko proposamenak:</u></b>					

#### 4.TALDEKO KOEBALUAKETA

Azken saioetako koreografiaren harira, ikasleek talde txikietan lan egingo dutenez, koreografiaren aurkezpena eta gero, hurrengo koebaluaketa fitxa beteko dute taldekide bakoitzaren lana ebaluatzeko.

<i>Bete ondorengo taula O (ondo burututa) edo H (hobetu beharra) batekin zure taldeko kide bakoitzak izandako jarrera eta parte hartzearen arabera</i>				
	<b>1.taldekidea</b>	<b>2.taldekidea</b>	<b>3.taldekidea</b>	<b>4.taldekidea</b>
<b><i>Izena</i></b>				
<b><i>Abizena</i></b>				
<b>Koreografiaren sorkuntzan parte hartu du.</b>				
<b>Ideen ekarpenak egin ditu.</b>				
<b>Taldearen funtzionamendua egokia izan dadin lagundu.</b>				
<b>Taldekideak errespetuz tratatu ditu.</b>				
<b>Generoari dagokionez, berdintasuneko jarrera erakutsi du eta jarrera ezberdinen aniztasuna onartu du.</b>				
<b>Taldekide honekin orokorrean gustura lan egin dut.</b>				